

INDARKERIAREN OSTEAN

Gurutze Gorriak Mexiko eta Erdialdeko Amerikako balantzea aurkeztu du

Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak (GGNB) apirilaren 13an aurkeztu zuen Mexikoko eta Erdialdeko Amerikako 2022-2023ko balantze humanitarioa. Bertan, indarkeria armatuarekin lotutako ondorio humanitario sakonak daudela ohartarazi du; hala nola, desagertzeak, hilketak, barnelekualdatzeak eta migrazioak.

Jardueren urteko eskualdetxostenak erakundeak egindako lana azaltzen du eta eskualde-testuinguruan kokatzen du. Mexiko eta Erdialdeko Amerikaren kasuan egoera bereziki konplexua da, estatuen, gizarte zibilaren eta erakunde humanitarioen arteko lankidetzarik gabe konponbide oso zaila duen indarkeria armatuaren presentzia iraunkorra delako.

Txostenaren aurkezpenean kalte eta ondorio horiek ekarritako giza sufrimendua larritasun «sakon eta mingarrietara» heldu dela ohartarazi zuen erakundeak, eta hori «aitortzea, artatzea eta prebenitzea premiazkoa» dela gaineratu zuen.

Olivier Duboisek, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen Mexikoko eta Erdialdeko Amerikako ordezkariaren buruak, Eferi eskainitako elkarrizketan esan zuenez, haien kezka nagusietako bat Mexikon eta Erdialdeko Amerikan itxaropenik ez izatea da, ondorio oso konplexuak dituen indarkeria armatuaren testuinguruan.

«Itxaropenik ezak kezkatzen gaitu; urteetan zehar indarkeria armatuaren presentziatik eratorritako

JENDARTEA / GAUR8

laz, 58.137 migratzailek laguntza medikoa jaso zuten Mexikon eta Hondurasen, zortzi laguntza gunetan, eta doaneko 32.602 dei eta 7.820 internet konexio eskaini zitzaizkien migratzaileei eta presoei senideekin harremanetan jartzeko Guatemalan, Hondurasen eta Mexikon, besteak beste.

zailtasunekin lan egiten ari gara eskualdean. Bizitza hipotekatuak dira», esan zuen adituak GGNBk Mexikon egindako 2022 eta 2023ko balantze humanitarioa aurkeztu zenean.

Forentseak, banda batek hildako bi gazteren gorputzak kentzen, Tegucigalpan.
Orlando SIERRA | AFP

Zehazki, GGNBren arabera, 2022an eskualdeko migrazio-fluxuak handitu eta birkonfiguratu egin ziren. Honduras-ko Nazioarteko Migrazioen Behatokiak argitaratutako datu ofizialek diotenez, Hon-

durasen ospitaleratze-erregistroak %974 igo ziren 2021. urtearekin alderatuta. Iturri beraren arabera, Mexikon egonaldi eta migrazio-guneetan dauden migratzaileen kopurua %43 igo zen aurreko urtearekin konparatuta. Gainera, lehen igorleak ziren herrialdeak –Honduras, adibidez– orain AEBetara doazen pertsonentzako igerobide dira.

Bestalde, Mexikotik igarotzen diren Karibeko eta Hego Amerikako herrialdeetako pertsona kopurua Erdialdeko Amerikako herrialdeetakoa baino handiagoa izan zen 2022an, eta aurtengo lehen hilabeteetan asilo-eskaera gehiago ere izan dira. Batzor-



deak dioenez, horrek esan nahi du herrialdeek ahalegi-na egin behar dutela pertso-na horien eskubideak ezagutzeko eta errespetatzeko; batez ere, arrisku eta kalteberatasun handieneko pertsonenak.

Duboisek Efe-ri zehaztu zionez, 2022an hamalau migrazio-gune bisitatu zituzten eta Mexikon 120 daude. «Ezin gara toki guztietan egon, baina egindakoa gure eta erakundeen arteko elkarrizketaren parte da, eta arazo batzuk konpon daitezke», adierazi zuen.

Lekualdatu behar izan diren pertsonekin eta migrazioaren eragile garrantzitsuekin hitz egin ondoren, indarkeriari lotutako ondorio humanitario nagusiak eta migrazio-politiken aldaketak hobeto ezagutu ditu nazioarteko batzordeak. Bildutako informazioak erakusten du ibilbidean zehar arrisku handia dutela istripuen biktimia izateko, pertsonen trafiko-sareen biktimia izateko, lapurretak eta estortsioak sufritzeko eta desagertzeko, baita zerbitzu humanitarioak eskuratze-ko aukera txikiagoa izateko ere.

«Migrazio-kontrolak indartzeak, eskualdean migrazio politikak ezartzeak eta desinformazioak gero eta bide arriskutsuagoak bilatzera bultzatzen dituzte pertsonak, agintarien kontrola saiheste-ko, eta, askotan, zorigaitzoko ondorioak izaten dituzte», azaldu zuen Olivier Dubois ordezkartzaren buruak txostena aurkeztu zuenean.

Diotenez, laguntza-premiak asetzeko eta migratzaileen eskubideen babesa bermatzeko erantzukizun nagusia estatutena da. Hala eta guztiz



Ricardo Lagunes eta Antonio Díaz-en irudiak: Mexikon desagertu ziren urtarrilean. EUROPA PRESS

ere, GGNBk onartzen du eskubideak eskuratzeko aukera bermatzea «erronka handia» dela, gero eta pertsona gehiago baitaude egoera horretan. Batzordeak modu konfidentzialean hitz egiten du agintariekin, oharrak eta gomen-dioak partekatze-ko eta, horrela, haien osotasuna eta duintasuna errespetatzen eta babesten laguntzeko.

160 URTEKO LANA

1863. urtean sortutako erakunde independente, neutral eta inpartzial bezala definitzen du bere burua Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak. Munduko ehun herrialdetan, gatazka armatuen eta beste indarkeria-egoera batzuen biktimei babesa eta laguntza humanitaria eskaintzen die, 20.000 kolaboratzailearen lanarekin. Gurutze Gorriaren eta Ilargi-erdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduaren, munduko

DESAGERTUTAKOAK

Gatazka armatuen beste ondorio garrantzitsu bat desagertutako pertsonen fenomeno da: iraganeko gatazketan desagertu ziren pertsona askok agertu gabe jarraitzen dute, eta migratzaile batzuk bidean desagertu eta hiltzen dira.

GGNBk bere txostenean dio 2022an Mexikoko eta Erdialde-

ko Amerikako herrialdeek ahalegin handia egin zutela arazo hori aitortzeko eta neurriak hartzeko, baina oraindik ere erronka handiak dituztela alor horretan. Erakunde humanitarioak agintariekin lan egin zuen instituzioen eta familien gaitasun teknikoak hobetzeko, haien beharrei erantzuteko eta haien eskubideen ezagutza indartzeko, bai eta eskualde-mailako laguntza-sareak osatzeko ere.

Zehazki, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak desagertutako pertsonen 1.632 senideri laguntza eta haien eskubideei eta bilaketa-prozesuei buruzko aholkularitza eman zien iaz.

Olivier Dubois-en arabera, «bilaketa, lokalizazioa eta, bizirik ez daudenen kasuetan, identifikazioa agintariei dago-kie, eta erregistro zentralizatuak eta eguneratuak izan

sare humanitario zabal eta zaharrenaren, parte da eta, hain zuzen ere, bere lana zabaltzeko, herrialde bakoitzeko Gurutze Gorriko kideekin aritzen da. Mexikon eta Erdialdeko Amerikan, batzordea presente egon da eta oraindik ere badago Guatemalan, El Salvadorren eta Nikaraguan izandako barne-gatazka armatuetan, baita Mexikon eta Hondurasen ere, pertsonen bizitza eta duintasuna babesteko.



behar dira, erakundeen eta herrialdeen arteko informazio-trukea ahalbidetzeko eta familiek beren kasuen berri izateko mekanismo iraunkorrak edukitzeko; erantzun humanitarioan funtsezkoa da, behar bezala jarduteko, giza baliabide nahikoak izatea».

PRESOAK

Bestalde, GGNBk munduko 80 herrialdetan askatasunik gabe dauden pertsonak bisitatzeko ditu. Joan den urtean Nikaraguan, El Salvadorren, Hondurasen eta Guatemalan ere egin zuen jarduera hori. Azken horretan, zigor legearekin gatazkan dauden gazteei bisita egin zien. Ondoren, bisita horietatik ateratako ondorioak eta gomendioak modu konfidentzian partekatu zituen agintariekin.

Horrela, 78 bisita eta laguntza-jarduera egin zituzten 35

atxilotze-leku eta espetxetan, Mexikoko hamalau migrazio-gune barne. Horrekin, askatasunik gabe bizi diren 104.078 pertsona baino gehiagori lagundu zieten, batzordearen arabera.

Zehazki, erakunde humanitarioa lanean ari da preso daudenen edo askatasunaz gabetutakoen eskubideak errespetatu daitezkeen lortzeko, oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea eskainiz eta senideekiko kontaktua erraztuz, bes-

«Migrazio-kontrolak indartzeak, eskualdean migrazio politikak ezartzeak eta desinformazioak gero eta bide arriskutsuagoak bilatzera bultzatzen dituzte pertsonak»

Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak desagertutako pertsonen 1.632 senideri laguntza eta haien eskubideei eta bilaketa-prozesuei buruzko aholkularitza eman zien iaz

Desagertutakoen senideak bilaketa batean, Tijuanan, Mexikon. Balek Tegucigalpako polizia-etxe batean utzitako arrastoa. Henrika MARTINEZ eta Orlando SIERRA | AFP

teak beste. Agintariekin ere lan egiten du, askatasunaz gabetzeaz eta erregimen murriztaileez bestelako aukerak ere aintzat har ditzaten.

IKUSTEN EZ DIREN ONDORIOAK

Ageriko ondorioez gain –desplazamenduak, heriotzak eta desagertutakoak–, beste batzuk ere badituzte indarkeriak eta gatazka armatuak, komunitate-dinamikak hausten dituztenak eta oinarritzko zerbitzuak eskuratzea eragozten dutenak. Batzordearentzat ondorio horiek kalkulatzeko askoz zailagoa den arren, talde armatuak dituzten komunitateetan mugimenduak murrizten dira, osasun mentalean eragina izaten da eta osasun-zerbitzuetarako edo hezkuntzarako sarbidea ere zailtzen da. Halaber, egoera horrek haur eta gazte askoren etorkizuna hipotekatzen du,

eta komunitateen kaltebertasuna areagotzen du.

«Segurtasunik ezaren tes-tuinguru horretan, arrisku eta ahuldade handien duten pertsonak babesteko, haiei laguntzeko eta haien duintasuna errespetatzeko lan egiten dugu. Funtsezkoa da indarkeriak eragindako pertsonak erantzun humanitario ororen erdigunean egotea» adierazi zuen ordezkaritzako buruak.

Indarkeria armatuaren beste ondorioetako bat gorputz-adorrak galtzea da. Lekualdatzera-koan, mugimenduan dabil-tzan trenetara igotzerakoan, gerta-tzen diren istripuen ondorio izan ohi da. Horren aurrean Gu-rutze Gorriaren Nazioarteko Ba-tzordeak anputazioren bat ja-san duten edo desgaitasuna duten 168 pertsonari protesiak, ortesiak eta terapiak eman diz-kie Hondurasen, Guatemalan eta Mexikon 2022an.